

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

274n. zenbakia  
bagilla 2002



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## **ANDRA MARIA'REN LARRAURI'KO ELEIZEA**

**(Mungia'n)**

---

# ABIZENAK

---

**ARRUZA** (Maruri): Mungialdean sortua eta andik zabaldua da.

"Arru-" mendu artea dalako, eta "-tza" atzizkia ugaritasuna dan ezkerro, izen ori daroan etxea mendi-bitarte asko dagon lekuan legoke.

**ASABURU**: Gamiz'en dago etxe bat, Arrankudian gan ei dago beste bat.

"Asa-"sasitza da eta "-buru" gaiñea. Etxe ori sasitza baten gaiñean egin zan.

**ASOLO**: Mungian daukagu. 1593.

"Asa-" sasia dan eskero, "solo" zer dan be argi dago, sasia daukan soloa dogu. Asola be antzera: Sasitza ugaria.

**ASPILLAGA** (**Azpeitia** 1570): "Aspil-" landara bat da, erderaz "boj" deritxona. Abizen onek aspilla dagon lekua esan nai dau.

Elgoibar'en eta Azpeitian ezaguna.

**ASTELARRA** (**Bizkaia**): "Astel" kardua ba'da, "astelarra" karduk daukazan larra izango da, barduz beterik dagoan zelaia.

**ASTIGARRAGA**: Gipuzkoan da agirien (1668). Astigar "tilo" dan ezkerro, abizen au astigarrak dagozen tokia da.

**ASTOREKA**: Larrabetzun dago auzo bat izen au daroana. (1754).

"Artea"ren ordez "astea" esaten zan lenago eta ortik etorria dirudi: "-eka" tokia adierazten dau eta orrelan arteak dagozen tokia litzake.

**ASTORKIZA**: "Astorki-" landara bat da eta "-tza" k ugaritasuna iragarten dau.

Bizkaian Berangon dago eta Gipuzkoan Oñaten, baiña geiago zabaldu da.

**ATELA**: "Ate-"tik dator eta "la" k tokia agertzen dau. Atea dagon tokia, baiña mendi-atea, ez etxe-atea.

Bizkaian ainbat dagoz.

**ATUTXA**: Arratia-aldean ugarien.

"ate-" artea ei da eta "-txa" ugaritasuna, baiña ez dago ain argi.

**AURTENETXE**: Bizkaian.

"-etxe" argi dago baiña non dago etxe ori? "artean" edo beste etxe batzuren bitartean.

**AURRE**: Morgan dago eta emendik Zestoara igaro da. (1703).

Aurreko aldea esan nai dau, baiña beste batzuk "urre"tik datorrela diño. Urrea edo urretxa.

**AURREKOETXEA**: Bizkaian (1794) zabal dabil. Gipuzkoan: Zestean.

Aurreko aldean dagoan etxea esan nai dau, argi dagoan lez.

**AXPE**: Abizen au Zeanuritik urtena da eta Bizkairik geienera zabaldu da. Ez Gipuzkoara, an "Aitzpe" izan bearko leuke. (1497).

Atxaren barrenean edo azpian dagoan etxe baten izena litzake. Ortik gero abizena.

**AIERBE**: Oscan dago ugari. Erria be bai. Ortik etorri da Nafarroa ta Gipuzkoara. (1130).

Aldapa adierazten dau, eta aldapa au otez beterik legoke eta orren barrenean izen au daroan etxea.

**AIO**: Bizkaian agertzen da XV gizaldian eta geroago Arabako Aiala'n. (1676).

"Aia-" otea dauan aldapa izanik, azkenengo "-o" tokia adierazteko izan leiteke.

**AZAROLA**: Gipuzkoan dago geien (1648).

Geienen ustez "azar-" sasia da eta ola onek azkenean ugaritasuna adierazten dau: Sasia ugari dagon lekua. Baten batek "azari" lukia esan nai dauan itzatik ateraten dau, baiña ez dauko antzik.

**AZKARATE**: Benabarratik Leizara sartu da, gero Elgoibar-aldera (1649).

Era askotan ulertu leike: "Aitz-Garai-Ate": Aitzaren gaiñean dagon mendi-atea da geien esaten dauskuna.

**AZKOAGA**: Aramaiona'tik urtena da eta ortik Goi-Deba aldera (1530).

"Azki" grama deritxon landara bat da eta "aga" k tokia adierazten dau eta mugatzaillea sendotu.

**AZKUE**: Bidasoa inguruan sortua da eta Gipuzkoa osoan zabaldu da. Gaur Bizkaian be bai (1650).

Lenago "Azkune" izango zan eta orrelan aitzadagon ueña esan nai dau. Edozelan be "atxekoa".

**AZNAR**: Aragoi-aldean sortua da eta emendik sartu da Nafarroara eta Euskalerrri osoa (824). Azagari Lukia.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

---

# INPERNOKD BIDETIK

## (5n. SARIA)

---

Laister laurogeita amasei urte egingo dodaz, baina sekula ez jat aztuko, ogeitazortzi urtegaz asi Donibane Garazin eta Konpostelako Santiagora egin neban bidaia.

Urrila zan eta aizete ikaragarria egoala abiatu nintzan bakar-bakarrik. Orreagara eldu, gaba bertan igaro eta Larrasoina'ra, laguntzaile bakarra baskardadea nebala. Larrasoinatik Iruñara eta ara non Iruñatik urtetan noala, bi mutil eta neska bat urreratu jatezan ea Done Jakue bidea egiten nindoan galdetuz, aurpegitik irriparrea kendu barik. Nik baietz! bete betean. Andik gutxira konturatu nintzen danek ez ebela izkuntza bera erabiltzen.

Gazteleraz ekien bakarrak bera belgikarra zala esan eustan, eta beste bikotea frantsesak. Bikote frantsesa ikusten zan gutxi ibiliak ziralako, atzean uzten genduzan Jean Paulek eta nik. Jean Paul Lieja irian azi eta ezitakoa zan eta berak kontatu eustanez, Valladolid'en ikasten jardun eban arkitektura, orregatik ekien ain ondo gazteleraz. Jean Paul sinesmen andiko gizona zan. Beintzat ori ematen eban. Done Jakue bidea zazpigarrenekoz egitera joiala esan eustan eta arinago Erromara joana zala erromes.

Bere ametsik andiena Jerusalem'era joatea izango zan oinez, aldean bearrezkoagaz justu justu.

Aurtengo bidaia ez zan Jean Paulen esanetan bidai arrunt bat, bein Konpostelako Santiagora iritsita, Finisterrera abiatuko zan eta bein ara elduta gero motxilari su emon, ori bait zan aintzanako oituretariako bat.

Urrengo egunean Gares'erako bidean ez gindoazen frantsez bikoteagaz, erromesen aterpetxean geratu bait ziren anketako minagaz. Garesen nekearen nekeagaz afaldu eta oera joan gintzezan jarraian. Urrengo egunean Lizarrarako bidean, ikaragarri gozatu genduan paisaiaz.

Gares'etik Los Arkos'era izango zan Naparroa barruan gure azkenengo txangoa, andik Logroñora bidean gindoazalako. Logroñoko aterpetxera eldu eta ez egoala lekuri esan euskun ule bat be tente ez eukon gizon lodi batek, ulerik ezeukalako. Ez gintzezan larregi kexkatu eta ainbat lasterren abiatu bear gendukela pentsatu gendun. Biontzako lekua topatu gendun munduko fondarik txarrenean. Ormak baltzituta ugerragaz, komuna oba ezer esan ez, eta oea atxa baino gogorra. Egia esan pagatu gendun prezioagatik ez zan lapurreta. Lapurreta gerokoa izango zan. Afaria jan eta lo egiteko asmoagaz fondarako bidean... lau errumanoak

urten eta batak aiztoa nire eztarrian ipintzen ebala bigarrena gorputz osoa miatzen asi jatan. Jean Paul ere ez egoan lasai, berak be aizto bat okotz-pean eukolako, partikeratik dirua ez zan zeozer ateratzen ikusi neban. A ikusiagaz batera, danak alde egin eben gure diruek ezer balioko ez leukien antzera.

Logroñotik Najerara gindoazela, ordurarte lenengo berbak nire aotik Jean Paulen belarrietara: –zer atara zendun, –itaundu neutson. Berak trebezia andiz gaia aldatzen eban itaunari garrantzi guztia kenduz.

Egun aretatik aurrera beti artuko neutson deskonfidantza puntu bat.

Najeran denbora gutxi egon ginen eta Santo Domingo de la Calzadara ainbat arinen joatea erabaki gendun egunak be luzeak ez ziralako. Santo Domingon erromesen aterpetxe baten biok gengozala lasai eta atsedena artzen, itaunka asi natzaion Jean Pauleri: Zer egin dozun jakin gura neuke lapur arek gugandik uxa arazteko. Berak ordea denbora artu eban erantzuteko zigarro bat esku artean ebilela.

Bakoitzaren argazkiak baino ez dautsiedaz erakutsi, ori bai, ilotz eta beste munduan egozala.

Eta ori zelan egin zeinke?, bota neutson artega.

Orretarako boterea dekodalako! bota eustan brausta.

Urrengo goizean Burgoseko lurretan barrena, Beloradora eldu ginen. Belorado errialde ospetsua zan, bertan egiten ziralako narruzko jaka eta erropaki asko.

Beloradon denbora gutxi egin gendun eta rapa-ropa, San Juan de Ortegarantz abiatu ginan, egunaren amaieran bertan egoteko asmotan. Bidean ez gendun berba larregirik egiten, naiko nekeza zalako ibiltzea bakoitzak eroaten genduzan motxilen pisua kontutan artuz lurralde aldatz bako baina era berean amaigabe aretatik.

San Juan de Ortegara iritsi orduko gauak estali gintuen orrexegatik Atapuerka izeneko erritxo batean gaua igarotzea erabaki gendun. Burgos'eko lurraldetik urten barik, Atapuerka ez zan oraindik ospetsu aintzinako gune zalako, artzainen erri soila zan.

Gau aretan pasa zanak betirako marketa itzi nendun. Afaltzeko ez geneukan arteragoko egunetako ogi apur bat, txokolate zati bat eta laranj a pare bat baino. Orregaz bakarrik be pozik, leku epel eta era berean giro jatorra egoan aterpetxe baten gengozalako. Aterpetxeko ardura-dunak azaldu euskun non zer egoan eta bere etxera abiatu zan gu geure kaxa utziaz.

## JAIO BAINO ZAZPI URTE LEENAGO (4n. SARIA)

Ego-aizearen laino xaramaz argi egoan ortzia. Uda-goieneko egun epelean mendirantz abaiatu nintzan, txakurra lagun nebala.

Mendi-tontorrera eldu eta izadiaren edertasunari adi negoala, ardiak zaintzen egoan agure urtetsua eldu ekidan, albora, eta, alkar agurturik; bedar ezearen ganean jazarri eta berbetan asi gintzazan.

—Egualdi onak mendirantz atera zauz, gazte?

—Bai, gizona. Mendiko bakartasunak eta aize osasungarriak indartu egiten dau, ba, bizitzako auzi-orraziak baretasunez erabagiteko.

—Nik neuk, ementxe mendiko bakartasun zardortsuan egiten dodaz, ba, egunak, gabak bere bai sarritan, ardi otzanak eta txakur zaindaria lagun dodazala. Berba egiten ezik beste guztia ulertuten dau txakur zintzo onek ba. Eta ardiak, nik neuk esaten dautseedan guztia ulertzen dauste. Pozik bizi naz, ba, bee-aldeko zaratatetik aske.

—Zoriontsua zeu, gizona, zeure abere otsanen artean.

Berba ta berba, bere senetik urtenda lez, jazoe-ra bakanak azaltzen asi ekidan:

—Ni, jaio baiño zazpi urte leenago...

—Zer diñostazu, gizona?

—Bai, gazte. Jaio baiño zazpi urte leenago, areik zirean bai, zidarrezko egun argi ta zoragarriak! Bai batera eta bai bestera, egaz ibiltzen nintzan zorionaren ego urdiñetan.

—Baina, zer? Amesetan diarduzu...

—Ez. Ez nabil amesetan.

Aixe bai ba-zan benetako zoriona. Nire gorputzak ez eukan oraingo astuntasunik, eta...

—Ez, ba, jaio barik bazengozan, ezin izan gorputzak... Itzartu zaitez, gizona, lilluratasun orretatik.

—Ez nago lo eta ez daukat itzarri bearrik.

Entzun ondo nik dirautsudazanak, gero egingo dogu berba-ta.

—Jarrai, ba, zeure lilluraldian, adi naukazu-ta.

—A bai ba-zan goiz eder eta zoragarria!

Baso-zelai eder batera el nintzan egaztada luze ta atsegingarrian, eta, zugatz eder baten azpian geratu izan nintzan. Inguruetan direan era guztietariko txoriak eldu izan zirean zugatz zabal aren ganera eta txirriztada, txorrotxio ta abesti zoragarriak, egundoko erestaldi bikaiña eskiñi eustien, otsezti unkiagarriak.

Erbi bizkorrak dantzan ebizan, zelaia betean, ondo etorria neuri egiten. Guztia zan poza ta alaitasuna, usain gozoak eta aize osasungarriak gozatuten nenduala...

Egun guztiak ez ziran izan baia, atsegingarriak.

Bein, azkoratxu zorrotza artu eta basamurtura joan nintzan abere gaizto eta basatiak ikusteko asmuaz: Ibilli eta ibilli, katamixerren batzuk zugatz ganeetan baiño ez nebazan ikusten eta, txorritzar ankerrak tantaian erpiñetan karrazkadaka. Alako baten artza aurkitu neban eta ondo esanean, lagun egin izan ekidan eta bere bizkarrean erabilli nenduan, ara ta ona, basoa-zear.

---

# LEGE ZARRA KENTZEN (1839-1876)

## 5.- "LA GLORIOSA" IRAULTZAREN ALDIA (1868-1874)

---

"La Gloriosa" deritxon iraultza-aldi onetan, gizon ospetsu bi agiri jakuz: Serrano Errege-Ordea eta Prim Nagusia.

Esan dogun lez, II Isabel, erregiña potola, ez zan lege zarraren aurkalar, baiña bota egin eben. Frantzia'ra.

Egoera orretan forua barriro Madrid'era aurkeztu zan eta adostasuna emon eben: Foruen arauz agintariak auke-ratu, Foruen aurkako aginduak kendu, foru-baimena onartu. irakaskintza antxiña lez ezarri, epailariak foruen arauz ezarri...

1869n.urtean laterri-lege edo konstituziño barri bat gertatu eben eta asieran foruak aintzat artu ziran, baiña laster asi ziran Udal-Batz barriak egiten eta Aldundia euren erara ipinten. Sindikoak gogor agertu eban ori "kontrafuero" zala, baiña alperrik izan zan, agindua bete-teko eta arin beteteko esan eben eta erri guztietan bete zan, foruak kontuan dirala eta aldundia bera be ez zan osotu agindu orren arauz.

Sasoi orretan aurrera croan zan "desamortizaziñoa" eritxona, Eleizeari bere ondasunak kentzeko, eta ortik eztabaida barri bat sortu zan Gasteizko gotzaiña ta abadeak karlisten eta foruen alde jarteko eta Madrid abadeen eta Gotzaiñaren aurka. Beti bardin!

Laterri-lege barri ori onartu egin bear zan eta gure Aldundiak deia artu ebenean ez ziran joan eta joan be ezin leitekezala esan eben, eskubide ori Gernika'ko Batzarrena zalako eta orrelan egin ezik "kontrafueroa" zalako. Udalak orretan Aldundiagaz batera egozan.

Serrano agertzen jaku Españan bakea egin eziñik eta Prim errege barri baten billa.

Giro orretan asi ziran Karlostarren irugarren guda sortzeko. Emen errege foru-zalea nai eben eta 1870n.urteko agustuaren 27n. egunean asi zan gudea, Bilbao uria Senano'gaz batera, aurka egoala. Karlostarren aldeko giroa Bizkaian izatearen errua abadeai eta Aguacil Gasteiz'ko Gotzaiñari ezarri eutseen eta madrildarrak Gasteiz'ko Gotzaindegia kentzea eskatu eben.

1872n.urtean Saboiako Amadeo erregea ekarri eben. Onek ez eban nai euskaldunakaz eztabaidarik eta foruak onartu ebazan.

1872n.urtean 8 batalloi eta 3.200 gudari egozan gudan.

Orrillaren 24n.egunean Amorebietan alkartu ziran Urkizu ta Orue aldunak Serrano'gaz eta Zornotza'ko ituna izenpetu eben: Izkilluak emon eta Batzar Nagusiak barriro ezarri. Euskaldunak amnisti osoa eskatu eben, baiña Serrano'k ori Erregearen eskubidea zata esan eban eta "Indulto" errukitsua emon eban. Ituna Zornotzan 1871n.urteko orrillaren 24'an izenpetu zan.

Ori egin zalako, Liberalena zan Aldundia oso asarre jarri zan, batez be Gasteiz'ko Gotzaiñaren aurka eta abadeiai kontua eskatzea erabagi eban. Elez-Barrutia kentzea eskatu zan barriro.

Arlo onetan uriak baserrien aurka agertzen dira, eta batez be au diño: erri txikiak eta uri aundiak ordezeko bat eukela eta ez dagoala ondo, biztanleak zenbat diran artu bear dalako kontuan.

Arazo onetan Aldundiak txosten bat eskatu eban eta eta 1871n.urtean emon jakon erantzuna: Edestian betikoa izan da erri txiki naiz aundiko ordezkari bat ezartea. 1632n.urtean sartu ziran uriak batzarretara eta uri bako-tzeko ordezkari bat artu zan. Durango-alde osoa be sartu zan eta oneri ordezeko bi emon jakozan. Egin dira aldakuntzak araudian eta onartuak izan dira 1746, 1784, 1833n.urteetan eta azkenengo au egiten egozala guda sortu zan eta ezin onartu. Eta 1848n.urtea ezker ez da ezer barririk izan. 1862-1864 urteetan zerbait aldatu zan.

Txosten orren ondoren lez, ez zan onartu unen eskaria 1872n.urteko agustuaren 28'ko aginduan, baiña laterria aretan egoan eta Gipuzkoako eredia eskiñi eban. An Donostiak 213 autarki daukaz eta Tolosak 199 eta orrelan beste erriak biztaleen arauz. Bizkaian obeto litzakela esan eben guztiak autarkia emon eta araua "gizon-bat-autarki bat" izatea. Aldakuntza ori Erregearen aginduz egin lei, Bizkaiko Jauna bera dalako. Arazo au urrengo batzarrera sartuko da Gernikan:

– Autarkia eukiteko erriak 200 biztanle bearko dauz, len lez.

– Erri-ordezeko bat 1000 biztanlera arte.

– 1000-5000 biztanlera 3 ordezeko eta gaiñera 200'eko bat.

– Bilbaok len 1, orain 7 eta 137 autarkiko bat.

Ordezeko izateko baldintzak: Emengoa izan, edo bost urte emen eginda, aldin eldukoa, erderaz irakurten eta idazten jakin (Ez da eskatzen jabea izaterik).

Gernikan ori onartzea gauza gaitxa zan eta gaiñera guda sortu eta korrexidorea Bilbao'ra joan zan. Ez zan onartu.

Eta sortu zan III guda Karlostarra (1873-1876): Bizkai osoa karlistakaz, Bilbao eta ingurua izan ezik. Karlos'ek zin egin ebazan foruak Gernikan 1875n.urtean.

Madrid'ek ez eukan adorerik foruak kentzeko eta Liberalak guda amaitzeko ituna eskatu eben baiña beste liberal asko izkilluen alde egoan.

---

# ETB'N ESANA OSOTZEN

## IRAOLAGOITIA'TAR FERMIN AITARI

### EUSKERAZAINTZA-KARDABERAZ 'EN ALDETIK

---

#### ALKAR LAN EDERRA

Aurtengo jorraitaren 13n.egunean, larunbat goizetan Iriondo aurkezleak gertatzen dauzan alkar-izketen artean, aurkezle onek Alta Fermin'egaz alkar-izketa gogoangarri bat izan eban.

Aita Fermin^ek bere bizitzan, fede-arloan eta euskerarean arloan, egin dauan eta egiten dauan lan ederra agertu eban.

Orduan Kardaberaz taldean giñanak eta gaur Euskera-zaintzan garanak, aita Fermin-egaz alkarlan ederra egin gendun, beste arlo batzuren artean, itzulpenak.

#### BANAKETA

Baiña une baten banaketa antzeko bat izan gendun, isillekoa eta asarre barik, ondo azitako gizakiak egiten daben antzera, baiña banaketa.

Banaketa onen barria jakin bear dabe ZER'en irakurleak eta euskaldun guztiak. Orregaitik doa idaz-lan au irarkolara.

Zergaitik izan zan banaketa? Garrantzirik ez daukan gauza bategaitik, ezelako zaratarik ez daukan atxeagaitik.

Atxeak ez dauka garrantzirik eta orregaitik aske izan bear leuke berau erabilteak. Zori txarrez ez da izan eta ez da orrelan.

Atxea erabiltera beartu ginduezanean, Fermin aitak ori onartu eta aurrera jarraitu eban, baiña guk, besteok, onartu ez genduanok, zuzen jokatu nai genduanok, isillik eta alboan geratu giñan.

Une garrantzitsu au ez dau aitatu Fermin aitak ETB'n. Eta jakin-bearreko gauzea da, edestirako bear dan jakin-garria.

#### LIBURU-MOLTZOA

Arazo ori argitzeko jakingarri batzuk dakardaz orain.

Egun oneitan diardugu Tolosa'n Kardaberaz'ek izan dauan aretoan, an aspaldion alperrik dagozan liburuak bideratzen.

Liburu onein artean lenengo aurkitu doguzanak Ikastoletarako argitaratu ziranak dira. Liburu guzti oneik, atxerik ez eukelako, irakaskintzatik alboratuak izan ziran S.M.'tik euskerara itzulitako liburuak dira: 600 kutxatan sei tonelada liburu. 25.000 ale ainguru. Bost maillatako erlejiñoa,

esku-lanak eta zenbaki arloa. Beste lau esku-liburu guztientzat irakurgarriak eta ederrak: Aita Santi Onaindiaren Literatura, Aita Arrien'en Euskalerrriaren kondaira, Iñigo Agirre'ren Lutelestia edo Jeografia eta Zubiaga'tar Felix'en Euskaldunak. Azkenengo liburu oneik ez doguz bota. Batzuk banatu doguz, beste batzuk gorde.

Ez uste izan erreza izan danik orrenbeste papel erreziklatzeko botatea. Doan emon, geuk kontainererra sartu eta eroatearren diru apur bat emon bear izan dogu. Zertan amaitu dan atxearen debekua!

#### KAREDABERAZ TXALOGARRIA

Esandakoagaz ez da dana amaitu. Dan ori Kardaberaz taldeagaz alkar lanean egiña izan da, eta ez dautsagu naiko esker emongo olako ardurak artu ebazan Garmendia'tar Juan Jose'ri eta beste askori.

Oraindiño bigarren moltzo baten ipiñi doguz salduko ez diran aldizkari ta liburuak: kardaberaz aldizkaria, Euskerazaintza aldizkaria eta olakoak. Asko saldu dira, beste asko banatu, baiña an dagoz beste 46 kutxa.

Eta irugarren moltzo bat oraindiño: salduko diranak: Ona emen idazleen izenak, ez luzatzeko: Zubiri, Zubikarai, Kamiñazpi, Latiegi, Amale, Lekuona, Saralegi, Zinkunegi (Balmes'en irizpide edo "Criterio"), Umandi'renak. Eta moltzo barri bat ez ipinteko, amar-bat kutxa edo boltza Kardaberaz'en agiritegia.

Or ikusten da Kardaberaz taldeak egin dauan lan ikaragarria eta or, baita, asko saldu arren, saldo barik dagozan liburuak.

Lan aundia eta gogorra izan da egin doguna, baiña ikusi daigun zertarako.

#### ORAIN ZER EGIN?

Orreik dira edestiaren jakingarri batzuk, baiña aurrera begiratu daigun.

Gaiñera euskerearen arloan gauza batzuk lortzeko laguntza emon dogu: ETB'en gaur euskera garbiagoa eta ohea egiten da eta orretarako gure kritikeak lagundu dau; gaur batuan idazten diran liburuak batzuk oso ulergaitxak dira baiña beste batzuk ulerterrezak, orretarako be lagundu dogu. Bizkaierrea idartzeko ekin dogu, atxeagaz baiña orretarako lan egiten daben Labayru, Mendebalde, Idazle-bazkuna, Lauaxeta eta ikastola batzukaz batera; liburu ta aldizkari asko argitaratzen doguz...

## MARIZIKIN (3N-SARIA)

Emakume zar-zar bat ezagutu neban  
nire errian, Aitonerrian,  
zatarra bera, zikina eta arlota,  
zorriz betea.  
Gauetan jantziak kendu, argia biztu,  
begiak eta musturra zorroztu,  
eta atzamar puntakin, azkar eta arin,  
zorriak akabatzen zituan,  
agin artean esaten eban bitartean:  
(Agin bat bakarra eukan):  
ATZO BERROGEI.  
GAUR IRUROGEI.  
BIAR LAROGEI.  
Laster akabauko zorri danak.  
Oneixek dira azkenak.  
Eta krist-krast!, zorriak akabatzen  
zituan, beingo batean, trebe, eta azkar.  
Ez dogu zorririk bear.  
Auzoko emakume batek Marizikini  
esan eutsan: zorriak gura badozuz akabatu,  
orrela alperrik zabilta.  
Artu eskuan erratza,  
eta aurretik etxea garbitu,  
soineko zikinak aldatu, ulea orraztu...  
Bestela zorriak umeak dabez egingo,  
eta barrero be etxea zorriz beteko.  
Marizikinek baietz eta baietz.  
Erritarrak ezetz eta ezetz...  
Azkenean, eztabaida askoren ostean,  
erritarren borondatea ezagutzeko,  
auteskundeak egitea izango zala  
biderik egokiena, erabagi eben.  
Olan ezin geinke jarraitu.  
Erri guztia zorriz beteko jaku.  
Edo zorriak akabauko dituguz,  
edo zorriak akabauko ditugu,  
edo zorriak akabauko gaitue gu.  
Marizikinen alderdikoak  
Aitonerriko orma, bazter eta txoko guztiak  
zabalkundeko paperez bete ebezan:  
MARIZIKIN LENDAKARI.  
EMON BOTOA BERARI.  
ASTE BETE BARRU  
ZORRIRIK EZ DOGU.

Eta udabarriko auteskunde eguna, maiatzak 13, eto-  
rri zan...  
Egun orretan eguzkia be goizago  
ogetik jagi zan.  
Auteskundeetan nork irabaziko ete eban?  
Marizikinen aldekoak  
kaleetan pozik biraka, deadarka, istiluka, zalapartaka.  
GU GARA NAGUSI!  
GUK DOGU IRABAZI!  
Iluntzean, botoak zenbatu ala  
arrokeriak ustuz ziran, musikak isildu,  
deadarrak makaldu, barreak gitxitu,  
aurpegiak ilundu...  
Aitonerria bere onera etorri zan.  
Udabarria euskal zelaietan  
inoiz baino alaiago agertu zan.  
Auteskundeetan  
euskalerrri jatorrak irabazi eban.  
Leen ilun egoana orain argitu da.  
Zikin egoana garbitu.  
Goibel egoana alaitu.  
Ekatzarren ostean, trumoiak isildu,  
eta eguzkia agertzen danean,  
orma-zuloetan ostendutako subelindarak  
curen buruak agertzen dabez  
eguzkiaren argi-izpiak gozatzeko...  
Aitonerri be euteskundeen ostean,  
aurpegi, barri bat agertu dau,  
eta bizi barri batek indartu...  
Eta erritarrak zorri barik,  
bazterrak txukun eta garbi,  
auteskundeetako garaipena ospatzeko,  
erriko enparantzan jai andi bat egitea erabagi eben.  
Eta erritar guztiak alkaturik,  
gizon eta emakumeak, zar eta gaztek,  
saino-su andi bat egin eben.  
Eta suaren inguruan, txistu soinu alaian,  
eskuetatik alkar loturik,  
dantzan asi ziran:  
GORA A ITONERRI.  
ABERTZALEA LENDAKARI.  
SUBEAK ETA SAPOAK ERRE.  
ARTOAK ETA GARIAK GORDE.

Iñaki Goikoetxea

# MIAMI ETA ESKEREA

Jorrail onen zazpigarren egunean DEIA gure egunkarian idaz-lan gogoangarri bat agertu dausku Bizkaia'ri buruz Alberto G. Alonso' k. Or ezarten dot neure oiña, oiñarri orretan, idaz-lan onetako gaiak aztertzeke.

Jakiña da, toki askotan, eta batez be Ameriketan, euskeratik sortuta toki-izen eta abizen asko aurkitzen dirala. Orrek poztu egiten gaitu arako "eman da zabal zazu munduan frutua" gogoratuz.


Toki-izenetan agertzen dana Bizkaia izaten da baiña ez dogu aitzu bear gizaldi batzuk dirala, "bizkaitarra" esaten zala euskalduna esan bear zanean. Zergaitik ori? Ai! Ez dakit! Ez ete da aldi aretan Bizkaia garrantzi aundiko eskualdea izan zalako! Gogoratu Zerbantes'en "caballero vizcaino" Kixoten, edo Javier bera euskerari bizkaera esatean, edo gudari bizkaitar batek Frantzia'ko Frantzisko lenengoa atxillotu ebanean edo Loiola'ko Ignazio'k bere buruari bizkaitarra esaten dautsanean...

Baiña goazen gaur Miami'ra.

Bizkaia ta bizkaitarra nonnai agertzen dira Miami'n: Jauregiak, bidezabalak, etxeak, etorbideak, ondartzatuak, antxiñakoa dan kai bat...

Izena bera askotara agertzen da: Bizkaia, Biskai, Vizcaya, Biskaine, vizkayno, biscaino... jazkera ezbar-diñak dira, baiña Bizkaia beti agertzen da gauza aundiakaz lotuta.

Toki-izenik garrantzitsuena "Cayo vizcaino" da (Key Biskayn, ingelesez) eta onegaz batera zugaztiak, ondartzak, itxas-jolasak, bizilekuen saillak. Emen kokatu ziran Kayo orretako lenengo billatzailleak 1763n.urtean. Orduantxe agertzen da Jeffers'en lur-irudian "Cayo Biskayno" izena. "Kai" izena bera zabal dabil izkuntzetan, euskeraz be kai, frantzeraz naiz ingleseraz tez, "portua" da. Ortik atera dabe "Cayo".



Miarnin: Bizkaia Jauregia (1914). Museoa.

Bigarren izen aundia Bizkaia Jauregia da. Auxe da inguru aretan dan bizileku girorik ederrenekoa. 1914' an egiña, zugatz eta baratz ederrak eta ondo zain-

duak inguruan dauzala. Ementxe dago Miami'ko erakustetxe edo museorik ederrena. Bizkaia Jauregia izena ezarri eutsoen, "Cayo" aregaz zer ikusi aundia daualako.

Gaur Miami dan tokian bertan bizi ziran inditarren sendi-taldeak, "vizcaynos" izena artu eben. Ori diñosku Cuba'ko Gotzain izan zan Gabriel Calderon'ek andik igaro ondoren.

Ez dogu aitzu bearko Laterri Batuetatik datorren bide zabala. Toki onetara eltzen danean "Biskayne Avenue" izena artzen dau. Garrantzi aundiko bide zabala da au eta urrean dauz goiera aundiko etxediak edo "rascacielos", bat "Biskayne one tower" izenekoa.

Eta gaur be Bizkaia izenak antxe jarraitzen dau. Auzo-une barri bat egin dabe Miramar urian, Brodwar konterrian, eta izena, gaurko idazkera artuz, "Bizkaia" ipiñi dautsoe.



"Buscayne Tower" (Rascacielos).

Ainbeste izen euskaldun agertzearen iturria izen baten aurkitzen da: "Buztinzuri'tar Pedro". Oneri "el vizcayno" esaten eutsoen eta XVI gizaldian eldu zan ara. Ba-dauz an beste izen batzuk be agirietan agertzen diranak: "Perruco" ta "Pedro el vizcayno" esaterako. II Felipe erregeak bialdu eban ara eta Miami ondoko itxas-ertzean ontzia ondatu jakon eta ogei urte igaro bear izan ebazan an, Santa Marta eritxon kaian, eta an itzi eban izen barria "Kay vizcayne". Inditarrakaz artuemon zabalak izan ebazan eta bake-egillea be izan zan inditarrak etorri-barriakaz 50 urtean izan ebazan gudaldietan. Beste euskaldun asko lez, ez egoan espāñatarrak ziran lur-kentzailleen alde, inditarren alde jokatu eban geiago. Inditarren izkuntzak be ikasi eta gaztelerea baiño obeto erabilten ebazan.

Buztinzuri'tar Pedro'k ondorengoak be itzi ebazan an, inditarren buru zan baten alabeagaz ezkondu ondoren eta guzti oneik gaur be "vizcainos" deritxen sendi zabala osotzen dabe.

**Olazar'tar Martin  
Eratzaille ta euskeratzaille**



---

## GURE AITA ZANARI

---

Umetan, gure leenengo maitasuna geienetan amaren-gana doa, babesle eta bear dogun guztia izan oi dala-eta. Askotan ere kide, lagun eta errukide daukagu. Jaio garrantetik azken orduraño gure maite kuttuna ama oi da. Eta aita? zelan ikusten dogu aita?

Txikitan ez deusku ardurarik eta ni ez nintzan salbuespena izan, baña gure aitaren bizimodua asieratik oso gogorra izan zan. Bi gudatan borrokatzera bearturik egotearren, minduta, erreta, kizkorturik eta makalduta geratu zan. Orrez gañera, eta politikaren errez, txirotuta. Ala ere, gure aziera eta eziketa zuzentasunean eraiki ebazan, baña umetan zuzentasunak gogortasuna emoten dau eta nire ustez, aita, zorrotzegia, latzegia zan, sarri nagusien arrazoiak ikusten ez dakigula.

Urteetan zear olan ikusi neban aita. Edozein umekeriagaitik oiuka, bigarrenez egitean zigortu, eta irugarrenean gerrikoa kendu eta ipurdia berotu. Urte luzeetan aitaren bildur izan nintzan. Barregarri badirudi ere, niretzat orduan ez zan orrela. Gure auzoa txiki-txikia zanez, danak ezagunak giñan. Ama guztiek, euren seme-alabaxoei janarazoteko, "... badator gerriko gizona eta jaten ez badozu, jo egingo zaitu!" esaten eutseen eta aita "gerriko gizona" izendatu eben. Berari orrek barregurea emoten eutson baña niri ez jatan ezer ere atsegin.

Urteak joan eta urteak etorri, gu anditzen giñoiazan betiko eziketa zuzen eta zorrotzean. Egia da, beragaz giza-lotsa zer zan ondo ikasi genduala, eta bidezko eta ondo-esanekoak izaten ere bai. Ez ostera manuerraz edo menpekorik izaten. Gure eskubideak eskatzeko beti prest egon bear genduala esaten euskun baña betiere gure bete-bearrak aaztu barik.

Oso onak ziran beraz, aitaren irakatsiak, eta neskatzen niñoiala, xamurrago ikusten neban. Noizean bein, solasaldia egiten genduan, aitari ori, oso atsegin jakon-eta. Aita-ganako bildurra eta ikuskera aldatzen joian eta, naiz eta ainbat gauzetan ados ez izan, bere itzak eta esanak entzungarriak izan oi ziran.

Gurasoen etxetikjoateko ordua eldu jakun. Astiro-astiro neba-arrebak ezkondu eta geuretara joan giñan. Orduantxe asi nintzan aitarengan nekan maitasunaz oartzten. Konturatu barik bere ekintza onak agertzen asi ziran. Argazkiak bezela etordazan burura... Garai gogorrrak ziran danontzat eta ni, oso ume tripazalea nintzan. Amak, aitari, gaba osoan lanean egoanez gero, jateko zerbait gertatzen eutson baña berak, erdi gosez gelditzen nintzanaz oarturik, jateko gogorik ez ebala esanez, niretzat gordetzen eban. Neguko egun gogorretan, etxeratuta gengozanean eta amak etxeko zeregiñetan ziarduala, aitak, lau seme-alabak artu, bere aurrean jarri eta ipuin polit asko kontatzen euskuzan, edo udabarriko eta udako bere jaiegunetan, atsedan —artu bearrean— eta berarentzat bearezkoa izanarren— menditxoetara masuztak artzen eroaten ginduzan, landare eta zugaitzen buruz beti azaltzen.

Orrelako gauza ugari etorten jatazan burura, baña danetan maitagarriena bere urtebetzea. Gaurregun ez leuke onek garrantzi andirik, etxe guztietan danetarik baidago, baña nire umearoan ez zan orrela. Gabonetan ez ezik, etxean ez zan jairik ospatzen, orrexegaitik bearbada, aitaren eguna guretzat aazteziña da eta betirako izango da. Alako egun berezian —guk iñoiz ez dogu zergaitia jakin— aita, goizeko zazpitan lantegitik etxera etorri oi zan eta geure gelan sartu gozokiz beteriko azpilla esku batean eta ardo-goza botita bestean. Gu otzez eta unkipenez, dardara gengozan lo itxuraz baña eme itxaroten. Jai labur-laburra zan baña gozokiak eta ardo-gozoaren ostean geure ogeetan ondo estali eta berotuta itziten ginduzan amak.

Aita baño leenago joan jakun ama, eta aiteri minbizia sortu. Orregaitik geurera ekarri genduan. Gure seme-alabeentzat aitite oso ona zan, guretzat eukazan berba gogorrrak eta eziketa zorrotza, eurentzat bigun, leun eta gozoa izan zan. Sarritan nire gizona edo neu asarre gengozanean ere, naiz eta une aretan ixildu, geroago biotz zabalak izateko esaten euskun. Batzutan arritu egiten ninduan.

Bere minbiziak urte neketsu emon arren, bera geien mindu ebana zaartzaroa zan. Aguretasun mingarria zan benetan berea. Gaztaroan eta urte askotan zear edozertarako gauza zan, danetarik baekialako. Artzaintza, zapata-gintza, igelgintza, meazgintza... ogibide guztietan zerbait egiña zan. Lan gogorren erruz erdi gor eta itsu egoan. Berari gustatzen jakozan solas-alditxoak eziñezko egin ziran, guk ain ozenki berba egin bearrez, borroka itxura artzen ebelako, eta apurka-apurka goibeltzen, ximeltzen eta ixiltzen joan zan.

Antziñeko aitaren bildurra aaztuta nekan, eta ain gizajo ikuziz danok maitasunez inguratu genduan. Baña orain beregan pentsatzean, gauza batek eragiten nau barrutik. Eziketa zorrotzaren erruz, edo gure izakera-gaitik, iñoiz ez genduan maitasunezko itzik esaten, eta bere azken egunetan orren bearraz egoala pentzatzen dot. Il baño egun batzuk leenago, nire aiztea eta biok beragaz gengozala, bapatean alkar mosukatzeko eskatu euskun begiak malkotan. Betirako alkar lagundu eta maitatuko genduala zin-egitea eskatu euskun, eta gu arrituta.

Ez dogu une unkiagarri a iñoiz aaztuko. Bearbada gaurregun "maite zaitut" esateak ez dau orrenbesteko garrantzirik, baña guretzat ez zan orrela.

Orregaitik, emendik nire aitari inoiz esan ez neutson itza biotz-biotzez esan gura deusot. Aita izatea ain zaila izanarren oso ondo egin zenduan eta ni zutaz arro nago.

MAITE ZAITUT AITA!

**Palmi**

## LAKET-LEKUAN

Emen naukazue bada, ene lagunok, ementxe, gela aundi onetan ertz baten bazterturik, zer egin ezda, erremuzka bakardadean baita ixillean eta aspaldiz joandako sasoirik ederrenak neure gogoraziñora bein eta berriz ekarriez, ni neu izan naizenegaz eta gero! Gorriak ikusten! Da osasunez, iñozkorik txarren aurkitzen naizela, indar metute eta askoz jausita gainera.

Etorri zait eziña, au da mingotza eneok! Kristelezko itsu aska ezpelen barruan nagoela turisten begi, aintziñako lagun zaarren artean bertoko baztarrak orniduteko.

A zelako zaratak ateratzen nituena neure eginkizunetan, atara bere! Txairoa, begi zolia ta bizigarria iñor trazan! Ja onekoa, danan adiskide. Gogorra nintzen ni izan ere! Makiña astinkadak artunda nago ni neure deporan, geroz eta geiago izanak, azkarrago!

Nor naizen ni? Itxaron egidazue puzka baten eta laga nagizue beste kontu apurren batzuk aurreratzen, neure burua zuei izendatu baiño leen. Itzuraz, biribilla nauzue, katararren este igerrekin egindako biotza, sagar kuku potin baten bestekolez, arizko arkondara meia, artillezko jersa, eta ardi-narruzko jaka eurok danak batera eskuz astiz eta gogoz iztu-iztu arikoipeztuaz josita. Taiuz, aurpegi zuria jaiotzez eta kedarra lako baltza geroago lanazkoa dala. Astunian 100 gr. inguru eukitez eta lau atzamar buruandizkora izatez, orain askoz urriago egin da nago.

Lagunak ezeze arerioak ere euki badaukatez bai: Ura ta zua, nagusienak onek izan bere. Zein urez ondatu edo zu garrez erre ez daukat osatzerik, eta jazteko oso osoa aldatu bearrean nago lengo bera berriz izan gura badot.

Jatekoz gitxi nauzue, zeren ardi-gizen koipiagaz igurtzi laztan batzurekin naikoa dot, baina lotarako zeozer nabarmenago naiz: Oge bero-berotan egin bearra daukat, txapiño lodi baten barruen eta tximini epeleko aldamenean, bestela otzitzen banaiz neure aurrerako egunak eginda daukadaz. Lagunok! Gaztiak eniak! Ez dakizuela oraindik zein dan nire dei-izena? Ba, laster ipingo zaituet jakitun, nirejoan-etorriakaz bere.

Nire egille zapata konpontzaille bat zala eta ni egin barritan, lurrea bota ninduen zuzen indarrez, eta sein jaio-berri baten antzera, leenengo negar otsa atara eragin eustien, gengoan olabe kanpotik entzuteko beste eta olantxe eupada bakoitzian. Gizon orrek nire menduagaz igarrita, atz-begi onekoa ikusirik, gorde ninduen beste anai batzurekin saillean.

Biamonean, dendako krizteletik atzean kalera begira ipiñi ninduen otsaratxu baten gainian, bezeroak ondo ikusteko moduan salgaien, onen-bestean, ume mokoak euren begiak niretik kendu ezinda, guri-guria dagoen mokotz bat banintz legez. Orain bai asmatuko zenuela zer naizen ni: PILOTA, lagunok! Bai, orixe! Dakizuenez, ene laguntxoak gu bion arbasoek, mendebaldeko aizea datorren aldetik, asago baiño gugandik dagozan lurraldeetan ezagutu zirela alkar, itxaso neurri eza, sakon-sakona, beren ur baltzak, gazi-gazan oso gaziak diren gainetik, beladun txalupa aundietan azken bagako gau ta egonean, igetargiaren aurpegi zaar eta gazte bein eta berriz ikusiez, txakur-uren gose ta egarria ebela, pena aundiz eta elorrioz Luberriak noiz ikusiko jaboten. Urre gorri: gosez itxas-ontziratu ziren ezerez dan tostar-tekotzaz, eta aren ekarria uzte bagakoa izan zan: PILOTA JOKOA. Ze, urre obea!

Arrezkeroz, ez egoan landutako ormarik pilotaka egiten ez zenik. Eskolarteko praka-motz ta olabeetako luzedunek eguneko arazoetatik noiz aldegingo zegoen zorutzen, nirekin euren ederrak egiteko. "Lagun onekin ordue labor", esan daroe, eta orrelan zenbiltzen zoko baztarrak ikusi ezin edo/ta abarketei bizerrak bai begiak atararte.

### EMAZUE GAZTEAK ARDURA PILOTAN ZERREN DEN EDERRENA JOKO GUZIETAN (BANKA)

Nire leenengo pausuek erriko txapelketetan asi ziran, pilota barriak bear zirala eta, ni neu aukeratu ninduen ta nire gordintasuna samurtzeko ume ausarti batzuk artu eben ekintza ori, lots onez, gero pilotariak curen esku barruak minbera jarrezi ez egiezan pilotaka aritzerakoan.

Jaia asi aurretik garbitu ninduen neukan kopietatik da aztinkadaz benetako pilota biurtu nintzen. Arik ona, lurraldez-lurralde ibillia naiz ni, inguruetan ezeze, gure mendietatik ganez arandik eta geiago.

Arlo aundietarako nintzen ni egiña, eta edonor esan, gauza egun berian birritan partidarik egiteko, nire gaztaroan beintzat.

Nigaz esku ligorrek bear ziren gero!

Malmutzek ere eginda dagoz nigaz... eta zenbat...! zakea atera aurretik, jokalaria beren bekokiko izerdi likiñekin ni neu buztiz, gero lurrian lapraztadea egiezan. Azken aurreko tantoan albernak egin...

### JOKA GAITEN ONHESKI / PLACA JUYE BETHI / HOLA DA OHOREZKI (1853-ALDUDE)

Jokoan irabazi naiak leia dakar, nor geiago, da azkenez dirue muturren aurrian. "Jokoa sorriek kokoa", da ori bai dala bearleku gaiztoa! Temoso alakoak! Gero utsak egiterakoan asarria, eta Goikaldekoari errua bota, bera madarikatuz. Orraitiok, debekatuz egonda izan naiz ni erri une batzuetan diru zigorrez menpe, orrek jokoan galtzen ez dakitenean erruz. Dcungiak, trebezi gitxiko orrek!

Diru tematan zer esan bada... bein baten bi gizonak bezakaz bakar baten aurka... Bai ta orgatillez lotuta ez zanean... Ankapez... Begi bat trapuz ezaltala... Ezker utzez... Amar tanto asieratik besteari emonda... Etb... Eskuzko aztinkadak ezeze ostikadak be artunda nago ni, arrika sasizera amurruz jaurtita ere bai, nori ta neri, txarrik bagako ni lango bateri, biurria nintzela ta... ta obiak ere entzun bearda.

### JOKA ZINTZOKI / HENOIZ EZ ETZI / IRABAZI LEIALI (EZNAZU)

Pilota leku eta zulo anitzetan ibillia naiz ni: Orma bat, bi, iru edo laukodunetan, aterpekoetan ta aize zabalian bere. Trinketeko kaiolan, zartzarora ninoiela ta zozkoa neke neke eginda neukala jokatu neban, "goshua" ren izenpekoz, aztintzen minduelako aurentzat elorri barik. Ene bada! Zeie eginda nago! Ikol da irol, briel da mengel, erkin da zimel, mazustre-tximur ta zinbrikute, ez adoere ta ez garrez, igerri eginda nagoela, eta zitsek noiz jango nautcn arduetan.

"Mundu ontan ez dala aziterako iñor geratzen" esan daroe ta...

Oraingoetan azkenengo partida jokatzen naukazue, zotinka, sosterak egiñala, makal-makalik, neure barruetan berotasun gitxi dala ta olan noizarte jakinteko da nire egoeraz desteilletan eta ekandu egin eziñik.

Nagoen gelako argiak amatetakoan gogoratzen naiz, erri soster baten, pilota lekuan orma baten idatzita egoanagaz: LAKET=LEKU.

### HUNE ZER / EMATEN AHAL DUEN / HERRIAN BATASUNAK (EZPELETA)

Alberto Narbaiza Etxeandia

Artzaren laguntasuna itxita, aurrera niñoa, baso illunaren ertzean basurde ikaragarria geratu ekidan, aurrez-aurre, agin zorrotzak agirian, neuri erasoteko usteaz, Jaurti neutsan azkoratxua, beki-bekokian aparau neban eta arnasa barik geratu zuen luze. Ba-niñoa aurrera eta otsoa begira, urru-maka, neuri zapart egiteko taivan. Aiko-maikoetan geratutako astirik ez neukan, begira-begira jarri nintzakoan, jaurti neutsan azkoratxua, uts egin neban eta Txepetx baten luma-artearen geratu ekidan neukan iskillu bakarra.

Oraintxe nago ona! Batu nebazan neure indar eta aalmen guztiak, joan nintzakoan aburnadan, sartu neutsan eskua, agoa-zear, oratu neutsan bustanetik eta iruntzietarik jarri neban otsotzar amurratua; eta Arranoentzat janari itxi-ta, alde egin neban andik, oiñeztua baizen bizkor.

Ixil-une luze egin eben alkarrerri begira eta mutillak:

—Jesus, gizon. Nok siñistuteko diñozuz zeure ameseta lorriñok?

Txepetxaren lume-artearen geratu azkorea, iruntzietara jarri otsoa... Ken zakidaz!

—Ara, mutil. Iñok bere ez daustaz siñistu izan iñoz baiña egi-egiak dira, neu ementxe ikusten nozun lez.

—Ez gizona. Ez! Zentzuneratu zaitez eta egin dagigun berba gizonak egin daroenez.

—A! Eta oindiño ez dot amaitu.

—Jaio baiño zazpi urte leenago! Jaio, asi ta gero izan ba'lira be!

—Egon zadi nasai eta entzun. Jaio baiño leen nundik-nora ibilli garean neuk baiño beste iñok ez daki-ta.

Elae bizkor baizen maitagarri batek erabilten nenduan ortze ta lurraren bitarteko eguratsean, eta urre-txindor alai batek jarraituten eustan leku guz-

tietara bere txorrotxio zoragarriakaz ots-ezti samurrez atseginduten nenduala, eta neure izakerea zorabioturik, zorionaren goirengo maillara eldu izan nintzan.

—Eta, gero?

—Ai ene, gero!

—Eta, Euskalerraren etorkizuna dala-ta ez zenduan ezerjakin?

—Bai. Bein, ez dakit nunditar zatekean, gizaseme luze-luze bat aurkitu neban basoan.

Eiztari ziarduan, txoriak ilten, zentzunezko gizonak ezin il daikeala geure lagun zintzo ta izadia alaituten diarduen txoritxurik adierazo neutsan; nire esanak biotz-ikutua egin eutsoen eta bere txarto egiñakaz damututa, izketan asi ekidan, bare-bare.

Etorkizuna susmetan ebanetariko gizona zan eta auxe esan eustan: —Arerio gaizkin eta zital asko dauz Euskalerrak inguruetan eta, geituez joan dakioz. Aberriaren askatasun-bideetan esi erailleak ezarriko dabez eta egundoko kalteak egingo trakankulu zapaltzailleak, eta, edenezko guzur eta itz dongeak zabalduko dabez euzkotarrok menperatu ta zapalduko asmu zitalez. Baiña, ezegaitik be ez gara kikilduko eta aurrera egingo dogu.

Ai, baia, zenbat eta estuago egiten gabezan, orduentxe etengo dira loturik gaukezan ede anker eta zoritxarreko kateak. Askatasun-eguzkiak argituko dausku Aberri guztia eta pozezko oivak eta didarrak izango dira toki guztietan...

Lilluralditik konorteratu zanean, auxe esan eban: Jaiotorduko izakerea itzi eta, "negarrezko erbeste" onerata AGERTU izan nintzanean negarri emon neutsan zoli.

**Aurre Apraiz'tar Balendin "NORBAIT"**

# BIZKAITARRAK: GIZANDIAK ALA ASTOAK?

Aurtengo orrillaren bostgarren egunean idaz-lan gogoangarri bat irakurri dot DEIA'n Bandrés eta Unanue'tar Luis'ek idatzia. Benetan irakurgarria da. Lenengo laburpen bat egingo dot, euskerara itzuliz, eta gero eritxi batzuk agertuko dodaz:

– Bernardo Ataxa'k esana da Bizkaitar izena leentxuago izeka-antzekoa zala: traketsa, zarratua, laburra, ezibakoa, guztiz ez-jakiña. Lope de Vega'ren aldietan alboratuen artean ezarten zirala bizkaiatarrak eta "astoa" izena ezarten jakela.

– Oraintsuago Gipuzkoa'ko Aldundiak Liburu bat ber-argitaratu dau. Julio Caro Baroja'rena da eta "Garibay'ren bidez euskalduna eta edestia" gogoratzen gogoratzen dauz. II Felipe'ren etxe-edeslari izan zan Garibay eta Zamalloa'tar Esteban'ek (1553-1599) iru gai argitaratzen dauz: euskaldunak, edestia ta bizitz-edestia. Or agertzen da XVI gizaldian ez zirala maitaluak euskaldunak. Garibay izatea, bizkaiatarra edo euskalduna izatea zan eta Lope de Vega'k bere Dorotea'n au diño: Garibai izatea, bizkaitarra izatea da, ez jakiña izatea.

– Baiña Garibai'k berak beti aitatu dauz itzaltasun aundiaz Gaztela eta España'ko beste lurraldeak. Orre-lan idazle euskaldun guztiak baiña ez alderantziz.

– Gaur toki orreitarra joaten garanean, euren izkuntza ulertzea be ez da erreza izaten, baiña seku-

la ez dogu iraintzen. Euskaldunak agertzen garanean, beste izkuntza bat geurearen gaiñera dakigunak, curen erderaz iraindu egiten gaitue. Guk or ikusten dogu areik antxiñako jokabide okerrak barruan daroezela, geneetan. Eta barruan bakarrik ba'litz gaitzerdi.

– Labur-labur esateko izkuntza bi ondo dakizana astoa ei da eta bat bakarra dakiana jakituna. Baiña izkuntza bakar ori inperioarena da...!

Pensabide polit eta eder oneik beste ikuspegi bat ba badauko: Bizkaitarrak (edo euskaldunak) mundu guztian izan gara onartuak, berbakoak garalakako batez be, eta orain 50-bat urte España'ra joaten giñean euskalduna garala esateaz beste barik, Ah! esan eta isildu egiten ziran. Nik ez neban somatzen astotzat artua izaterik. Orain be barru-barruan ori dago, baiña gaiñean agertzen dan izukeriak dana estaltzen dau.

Izu-zaleak oso gitxi dira gure artean, baiña barru-barruan zerbait bear endakerizkoa dan irain ori guri ezarteko. Gaur ez gara guztiok astoak, gaur guztiok ei gara izuzaleak. Ez da ohea!

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 18,03 €(3.000 pezeta). Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

# TOKI-IZENAK: DIATXAK

## (Fruniz 1798)

Toki bildurgarria izan da beti Diatxak deritxona, ariztegi aundi baten barruan. Toki orretan, bide-ertzetik urrean, kurutze bat dago eta azpian "Diatxak" izena. Ez uste izan kurutze ori an iñor i: ebela-ko ipiña danik. Ez. Bide-kurutzea dalako dago an kurutzea. Izan be antxe alkartzen dira Fruniz, Fika, Gamiz eta Ibarra'tik datozen bideak, ziur asko 1714n.urtean ziran bide bakarrak. Bide barriak egin bakoak ziran.

Diatxak ba, aresti aundi baten erdian dagoan bide kurutzea da. Baso aundi orrek an dauko ardatza.

Baso aundia zan. Nire ustez sei Km. luze eta 4 km. zabal, guztiz 24 km lautu.

### ARETXAK

Aristegi eder ori sasoi aretan aretxez bete-beterik egoan. Baiña gaur?

Gure etxea dago aresti orren barruan. Landako-etxebarri da gure etxearen izena, baiña guztiak Montaña esaten dautsoe. Fikarantza goazela, bide-zabataren alboan antxe ipiñi dabe izena.

Landako-etxebarri dauka izena, Gamiz'ko Olgorta'n dagon eta Landa'ko izena dauan etxeokoak egindako etxebarria dalako. Eta Montaña esaten dautsoe gure aurretik edo lentxuago an Santander'etik etorritakoak bizi ziralako. Orregaitik esaten jako goiko solo bateri Mala Tierra eta Diatxak ondoan dago Campo Libre deritxon lekua.

Nik ondo ezagutu dodaz etxe inguruan ziran aretxak, oso zarrak, eta asko. Benetan aretx ederrak!



ALDI ZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

Bost aretxetan, abarren artean edo enborraren barruan, oilloak egiten ebezan arrauzak eta aretx bateri Frantzisko'rena esaten eutsagun, Frantzisko etxeko artzaiñaren lagunak andik arrautzak ostuten ebazalako.

Aretx areik beti ezarri dauste olako itzaltasun edo barru-min bat: Ain aundiak, ain zarrak, ain asko ta zabal...!

### IZENA

Oraintsu irakurri dot Fruniz eta Morga'ri buzu Rikardo Fernandez Begue'k idatzia dauan liburua, Maribi udalkideak emonda. Gero neuk be idatzi dot beste liburutxu bat eukeraz Fruiz'eri buruz.

Liburu orretan auxe dago erderaz idatzita: Fruiz'ko udal-batzarrean asarrea agertu zan, erriarenak diran Diego Aretxeta basoetan zugatzak bota eta bota egiten diralako. Ori 1741 urteko batzar baten.

Berba gitxitan ainbat albiste dagoz or: Basoaren izena Diego Aretxeta, ortik gaurko Diatxak edo Diatxeta. Zelako aldakuntzak izenetan! Baso ori erriarena zala. Orregaitik agertzen da arazoa erriko kontu-liburuan. Aretx oneik orain dirala 250 urte an egozala eta botateko modukoak zirala. Zenbat urte daukez? Bosteun edo geiago bai! Jaurlaritzak ez dauala izten botaten etzun dot, baina berez jasiko dira.

Gamiz'koa dan Ibarra auzoan etxe batek Dione dauko izena. Beti arduraz bizi izan naz izen ori nondik etorria edo zerena ete dan. Eta ona emen erantzun pozgarria: Diatxetan zer-ikusia eukan gizona, Diego-Aretxeta'ren zaintzaillea bizi zan an, orregaitik bere izena Diego'ne edo Dione. Zoragarria da gure toki-izenen mundua!

Ain urrean daukaguz eta ain jaramon gitxi egiten dautsegu. Oraintxe diardut toki-izenen eta abizenen idaz-lan batzuk egiten, ZER'erako ta EUSKERAZAINTZA'rako. Mundu zoragarri batera sartu naz.

**Olazar'tar Martin**

# BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

# OTO TA POTOTO (I)

## (Bi mutiko azienistorio-mistorioak)

Oto'ri buruz zerbait

—Baña. Anes, nundik atera dok izen ori. Alemania'tik ala?

—Ez, ba. Bere gurasoek imiñitako izena da...

—Baña, nola liteke ori?

—Ez al dakizu zer oitura zegoen izenak emateko bataio-egunean?

—Eguneko Santuen izenak imintzea.

—Oto jaiotako egunean aukeratu zituztenak, guztiak ez jartze arren, lenengo bi izenak imiñi eutsoen: Honorato eta Toribio.

—Eta, bi izen oietatik nolan sortu dok Oto?

Bi izenak batera askotxo izanik, lenengo izenaren isatza (To) eta bigarrenaren burua (To) deitzea erabaki eben.

—Baña, Toto (totto) txakurtxoen izena dok, mutil.

—Orixe gerta zitzaizen gurasoei; Toto'ka asi ziranean, konturatu ziran semea txakurtzat artzen ebela eta ordutik kendu eutsoen lenengo T ori.

—Eta orrela atera eben Toto'tik. Oto?

—Bai, ala da izan be.

Bataioko arratsalde artan, Tabernazuloan sartuta, an zegoen Oto'ren aita, Bartolo jauna, bere trebetasunak lagunei agertzen.

—Zer abilidada?

—Bartolo'k sudurra eukan kakoduna eta luzea. Bere trebetasun guztia zera zan: sudur-puntari ortzakin ainka egitea.

—Ori al zan guztia?

—Ordurako dozena bat pattar-kopa irentsita zegoen... Sudur-muturra tantaka, ezpañak lerdea dariola, urdalla bero eta burua naaste, aotik itza eta pitza etengabeko jarioan. Noiz batean eldu dio sudurrari ortzakin... Ango txalo eta oivak! Ango Bartolo'ren arroa!

—Eta, Bartolo, zuen ume ori zer tipokoa da?

—Nere tipokoa, Bartolo eta Konpañia.

—Eta burua?

—Aundi xamarra. Nerearen antzekoa.

Esan dezagun batik-bat Bartolo arlote gizarajo bat zala. Ez jan eta ez lan. Emendik aza bat arrapatu, andik bi porru ostu, udazkenean gaztañetan, udaberrian perretxikotan. ibaiertzean loina eta eskallu udagalduta...

Bai ba, ez zeukan amar metro lur bere etxearen inguruan ta zer egingo eban gizarajo arrek! Lanerako taju gutxi, gogoa, berriz, gutxiago... eta an zebillen beti nundik mokautxo bat lortuko... Marikutz emazteak joan bear izaten eban sorora alogorean, andik jasotako bost errialekin umeai jaten emateko... Jazteko ez zan bost errialekin osatzen; baña, auzoan zabartutako praka eta txamarrak ematen eutsoezan semientzako apaingarri eta berogarri... Bartolo'k irabazita-koaren zai egon bearko baTu, errukarri Maikutz eta bere ondorengoak!

Ama alogorean eta aita gaztañetan, Oto asi zitzaigun bere kasa, ez eskola eta ez edukazio... Kristiñau ikasbidera joan oi zan, orratio... Buru azkarra zuan gauzak gogoan artzeko Alan be, ez eban gauza aundirik ikasi: eskolara noiz-beinka bakarrik, eta joandakoan ez zion maixuari tutik ententitzen... Zenbat zaplaztako artuta zegoen, eskolara gutxi joan arren... Eta belarrondoko aiekin eskolarako zeukan gogo apurra aitu eta gastau. Nonorato Etxeberria, maixuak deadar egiten ebanean, zutik para eta serio-serio "Sardiña ustel", erantzungo eban. Ez bai zuan erderazko "Servidor de usted" ententitzen... Kultura aundirik ez zitzaion buru aundi artan sartu... Izan be, erderaz ez dakanari, erderaz kultu'a ematea. begitik ardoa eskeintzea bezela da. Eta, Oto'ri ardoa begitik eman zioten eta ainbeste abilidadarik ez begitik ardoa ezpañetara jeisteko... Ori izan zan etxetik kanporako Oto'ren kultura guztia; etxe-barrukoa, berriz, Jainkoak daki... Ez aitak eta ez amak ez zuten sekula astirik eta denborarik artu semeak ezitzeko.

—Bartolo —esan zion Urliak— zergaitik ez dezu Oto eskolara geiago bialtzen?

—Zertarako? Ez bait du ezer ikasten...?

—Eta, bat berabe bialdu gabe geiago ikasiko al du?

Esanagaitik, edo, Bernabe jaunaren eskolara bialdu zuan negu batean. Urte artan egin bear zuen Oto'k bere Jaunartze Nagusia.

Bernabe jaunak artu zuan bere eskolan mutillakin errukituta. Kultura erderaz ematen zuen arrek be bere eskola partikularrean; baña. euskeraz ekilako Oto'ri egoki lagundu zion.

Ikasi zuan, beintzat, irakurtzen eta zirri-horro batzuek egiten... Baita mundua Lazkau'ko inguruetan ez zala bukatzen; bazirala aurrerago beste erri batzuek ere: Madril. Bilbo, Donosti...

Orra gure Oto kulturaduta.

Buru aundi aretan bein sartzen diranak, barruan dira sekulako. Ez dabe andik urtengo... Ez, orixe!

Ikasitako apurrak, an dagoz buru barruan; baña, ikasitakoak erabiltzen; bakoitza berari egokitzen zaion tokian jartzen eta alkarren arteko artuemonak astertzen, orretan naasten jakon burua... Ez eban bururikjasotzen... Ezin iñundik be burutu.

Noiz edo noiz, kasualidade utsez, izaten dauz buruan tximista argitsuak, eta orduan bai. gauzen arteko artu-emonak garbi ikusten dauz... Ori ez da gogo atzeko aalmen sorna; burubidetik jokatze aalmena da; barru guztiak argitzen zaio ordu orretan.

Bañan, noiz jotzen dau ordu onek?

(jarraituko dau)  
Arrinda'tar Ames

## KAPITALISMU EDO DOMU BALTZUAREN GALERAZPENA

Jende zeearen bizia, beti, da estua ta batzuetan dirua aurrean, eskatubearrean aurkitzen ziran. Jaunaren Iregea zintzoa ta legea gogorra zan. Dirurdunak, kontzientziaren ardurapean, beartsuari lagundu egin bear dautso ezertarako onurarik eskatu bagarik. Emen, garbi, agertzen da beartsuaren alde noraiñokoa dan Jaungoikoaren begirarena. Ta berak alderdi biak, ondo, ikusten dituan ezker, legearen jokandea bientzat da mesedegarria, anaitasuna sortzeko bide egokia.

Zure anairen bat bear izanera eltzen ba-da, zure biotza ez egizu gogortu, eskua ez egizu itxi aren aurrean. Bestera, zabaldu egizu eskua ta bere eza konpontzeko bear daben saria, laguntza emoiozu. D, 15, 7-8.

Zugaz bizi dan nire erriko bateri, dirua aurreratzen ba-dautsazu, aregaz lukurrerua ez zara izango. Irabaririk ez egiozu eskatu... Urt, 22, 24. Zure anaiari ez diru, ez janari, ez beste ezer, irabazitan, ez dautsazun aurreratuko... D, 23, 2.º. Ikusi baita be... A, 25, 36-38. Beartsu bat azkene-

raño eldu danean bere erropak saldu bearreraño, egun beratan, eguzkia sortu baiño len, atzera, biurtu bear jakon. Urt, 22, 25-26.

Larunbat urtea zazpi urtetik zazpi urtera izaten za. Ta urte au parkan urtea zan. Aurretik zorrak ezin zeitekezan luzatu urte onen azkenetik aurrera. Lagun urkoari baitura egin dautsanak, parkatu egingo dautso baitura orren zorra, ez dautso zorrik, estu, eskatuko bere lagun-urkoari edo anaiari, urte au parkamen urtea da-ta. Arrotza, bai, zorra biurtzera beartu al izango dozu... Dt, 15, 2-4. Era orretan iñor ez litzake zorpean geratuko, iñungo lagun edota hankuen menpean.

Ta orrez gaiñera, beste agindu on bat agertzen da emen, aurrezaz emoten dan dirue, ez dedilla izan, irabaz-bide loi baten zorrean.

Solozabal'dar Paulin

## ASKATASUNERAKO JAIOAK

Jaungoikoak askatasunerako egin ginduzan ta Israel zapalduta ta minduta egoan erri bat aukeratu eban munduari maitasunean bizi izaten irakasteko, beartsuengandik asita, gizadia erabarritu nai dau. Izan bere, Israelek zapalduta ta makillaz aurrean, artuta lan egiten chal] Ejitoarentzat erriak jasoten ta orrez gaiñera, irainduta, aurrean, erabilten ebezan, alper batzuk bai Iran lez. Irt. 1, I3, I4. Era guztietara, txarto, erabilten ebezan lanez burler ta egurre. IRT. I, ii.

Gaiztakeriaren sarnea izan bere, gizonak bere barruan daroa bere ta Ejitoarrak munduak emon oi daben aundikeri ta nauskeri usteae ez egozen konforme israeldarrak zapalduta orrez gaiñera mindu egin nai zuten iraiñaren bidez. Era guztietako ezbear gogorrek agintzen eutsezan, lanak eurak agindutako ordu barruetan eginb ear zituelarrik. Alderdi guztietatik lotuta eukezan lanez eta orduz. Egin ezindako beste lan goizetik gabera, ta erantzun ezik goitik bera euken egurra.

Alan bere, Israelgo erria geroago ta ugariago egiten joian. Nekepean baiña azten, zoritxarpean baña ugaritzen, leporaiño urketute bearrez, baiña erri aundi egiten. Jesusen lurreko erreñuaren irudi ziran ta azi egin bear eban lurrean frutu edo zitu ona emonaz. Jaungoikoaren eskua egertu bear eban Israel erriak gaiztasunean ta iraiñetan, aurrera, egiñaz. b-t. 1, i2.

Israeldarren ugaritzen ikusirik eta erri indartsu bat egin bear ebala konturaturik, Ejitoar agintariak, bene-benetan, bildurtu ziran. Egiñalak egin ditugu lanaren bidez, gogorrek ez estutzen, zapaltzen ta zigortzen... Ta gure, aren aurkako alegin guztiak, alperrekoak dira, geu zapldu ta haztertu bar gaitue. Zigor barriak billatu bear ditugu. Len, lanaren zigorrak jaren eutsezan, baiña orain Israeldar seme jario barrien billa doaz.

Emagin edo ume jaiotzan laguntzen ibiltzen ziran andreei, agindu au emon eutsen. Israeldarren ume jaiotza eltzen danean, mutilla ba-da. Il egizuc ta neskatillea ba-da, bizirik itzi. Emagiñak Jaungoikoaren hildur ziran, ta ez ziran auzartzen umerik ilten. Ejitoar agintariak au ikusirik, emagiñei kontuak eskatzen asi ziran. Baiña andra arek zur jokatu eben agintariei erantzunez. Ejitoarrak lakoak ez dira Israeldarrak. Onek andra errimeak dira ta emagiñak laguntzera eldu ordukp, umea ekarten dabe. Jaungoikoak andra onen jokabidea bedeinkatu egin ta Israel erria ugaritu egin zan, ta baita bere, emagiñei ondorengoak emon eutsezan, curen bizitzea poz aundiaz beterrik. Faraon ta onen lagunak au ez eben, ondo, ikusten ta gitxiago onartzen. Len, larri, ha egozan, orain. larriago ikusten eben curen burua.

Solozabal'dar Paulin

ZER EZ DOGU LORTU?

Ez dogu lortu atxea kentzea edo aske izatea baiña ori lortuko dan egunen baterako emen gagoz lekuko lez; ez dogu lortu Bizkai'ko euskerea ikastoletara ta ikastegieta-  
ra edo udaletxeetara sartzea eta abar.

Or daukazu, irakurle, gure edesti garratza ta zuzena. Batzuk mimenaren antzera makurtu eta apurtuak izan barik egiten dabe lan, beste batzuk antxiñako aretzen antzera aitzeari aurpegia emonda, baiña ez ete goaz guz-  
tiok elburu batera?

OLAZAR'tar Martin'ek

**BIZKAIKO EUSKERA ZUZENTZEN**

**EGUNONAK**

Aztertu daigun gaur, egunon-agurra zelan egin.

Iparraldeko euskaldunak, frantzetarrai jarraituz, bide au artu dabe orretarako: "Egunon" esaten dabe goizean asi eta arratsaldeko zazpirak arte. Zazpiretatik amarretara "arratsaldeon" eta amarretatik aurrera "gabon". Frantzetarrak lez.

Gaztelereak ostera onetan okerjokatzen dau:"egunon" ordu biak arte, "arratsaldeon" illundu arte eta "gabon" illundu ezkerro. Baiña nik itaun au egiten dot: Ordu bietatik aurrera "arratsaldeon" esaten dan lez, zergaitik ez goizean "goizon"? Edo goizean "egunon" esan bear ba'da, zergaitik ez dau balio agur orrek arratsaldean, eguna izanda?

Egokiagoa dala deritxat iparraldeko jokabideari eta nik emen be artu egingo neuke: Egun osoan "egunon" eta arratsa ur dagonean "arratsaldeon". Zazpirak ez da ordu txarra aldakuntza egiteko. Eta ogerako orduan, amarrak?, "gabon".

Noizean bein entzuten dodaz beste esaldi batzuk: Eguerdian "eguerdion" eta illuntzean "illuntzean". Markinaldean esaten ete da au? Nik esaldi oneik ez neukez onartuko.

**BE/BERE/ERE**

Bizkaiko euskereak gipuzkoeratik asko artu dau eta artzen dau, baiña larregi ez daigun artu. Danean da ona neurria. Au diñot "ere" Gipuzkoakoa artu dabenentzat.

Gai au aztertzeke itaun au egingo dot: "Bere" ala "be" ala "ere"?

Goian esandako zioagaitik "ere" alboratu bear dogu: Bizkaian iñon be ez da esaten eta itz orren bear-izanik be ez dogu somatzen.

Orduan, "bere" ta "be"ren artean aukeratu bear dogu eta nik, zalantza barik "be" aukeratzen dot. Ondo dakit "be" ez dala besterik "bere"ren laburpena baiño. Alde orretatik "bere"ren alde negoke, baiña "bere" orrek sarritan illuntasuna sortzen dau beste "bere" bategaz. Esaterako "Peli'k bere semea maite eban eta Kokiñe'k bere bere semea ezin izan eban aitzu". Or ikusten doguz "bere" bi esangura bardiña ez daukenak

eta irakurkeran naiz berba egikeran nastea ateraten dabenak.

Eta "bere" bakarra danean be, sarritan, zalantza etorten jaku zein "bere" ete dan. "Josebak bere ogia jan eban". Dana irakurri artean ez da jakiten "Josebak bere" ala "bere ogia"izango dan.

Oztopo bi orreik alboratzen doguz norena dan agertzeke beti "bere" eta baietza ziurtatzeko beti "be" erabilli ezkerro.

Gaur zelan idazten dan eta zelan berbaz erabilten dan begiratzen ba'dogu, era biak aurkituko doguz.

**TZUT/TSUT**

Nori-arloan "zuri" jokoa artzen dogunean, sarritan ikusten dot "tsut" idatzita eta badaukat susmoa or errazoi diakroniko edo izkuntzaren edestikoren bat dagola. Jaime Kerexeta zanari iñoz entzun be entzun neutsan, baiña ez ulertu. Orregaitik nik "tzut" erabilten jarraitzen dot.

Adibideakaz argituko dogu gauzea obeto.

"Dirua emon neutzun" edo "dautzut" (zuri-jokoa da, orduan "-zut").

"Eskutitza dakartzut".

"Emen natortzu". "Or joatzu".

Zuri-jokoa barik ari-jokoa danean, argi dago: "Dautso".

Aditz-joko au azertzen diardugun ezkerro, beste itaun bateri be erantzun bearrean aurkitzen gara: "Dautzu" ala "deutzu"?

Nik "dautzu" idatziko neuke eta zio onetan oiñarritzen naz: Euskerearen jokerea da abostegi-arloan "au" dagon lekuan "eu" esatekoa. Ori itz askotan agertzen da eta bat oso zabal dabillena "gaur" idazten doguna Bizkairik geienean "geur" esaten dogu.

Gaiñera nik uste dot jatorriko aditza "daut", "dauzu" "dau" "daugu" "dauzue" "daue" izan zala, "au" idatzia "o" biurtzeko jokerea be badaukalako euskereak: "Auka" "Oka", "Laudio", "Llodio". Erdereak be ba-dau jokera ori: "Causa" "cosa". Orregatik aditz baturik egin bear izatekotan, "Dut" artu barik "daut" artuko neban, ortik etorriak diralako "dot", "det" eta "dut".

OLAZAR'tar Martin'ek



# BIZKAIKO EUSKERA ZUZENTZEN

## ARA/ONA/ORRA

Bizkaierak dauzan oker batzuk zar-zarrak dira eta tamalgarria da aldatzea, esaterako "ara emen".

Esan daigun, lenengo ta bein, lenengo abots bakartia (bokala) luzetuaz iragarten dala ori konturatu barik: "aan dator Miren Ori antxiña "ara an dator" zan, baiña gaur sarritan erabilten da "aan" ori.

Bikoteen alkartzean onelan egin bear dirala diñosku gramatikalarien arauak: "ona emen", "orra or" eta "ara an". Burubide zuzeneko dala dirudi alkartze orrek.

Baiña begiratu dagigun eleiz-abesti zarra dan "Ogi zerutik" eta onako au aurkituko dogu: "Bildots santua, ara emen non dagoen lurra zeruaz bat egiten". "Ara emen" ori edo erriak esaten dauan "aamen" txarto dagozela esango dogu? Ezetz uste dot, baiña nik idatzikeran beti erabiliko dot "ara ari" edo "ona emen". Ez "aor", bai "orra or".

## BENO

Erdereak "katxaba-itx" edo "muletilla" asko erabilten dauz eta ain sarritan entzuten doguzan tez, itz orreik euskerara sartzen jakuz eta ez leukee sartu bear, edo bearrezkoak ezdiralako edo euskeraz beste batzuk daukaguzalako.

Esaterako mingarria izaten da gure belarrientzat euskeraz alkar-izketa egiten danean ainbeste bider entzutea "bueno" edo "beno". Orren orde ez errez esan lei: "bai" edo "ederto".

Sarritan entzuten dan beste katxaba-itx bat "klaro" da eta errez-errez artu lei onen orde "jakiña". Esaterako: — yo no quiero beber vino". Erantzuna: — ¡Claro! "Ya se ha cubierto tu cupo! Euskeraz: — Ez noa ardaurik edaten! Erantzuna: "Jakiña (ez klaro), samaraiño betetuta zagozela da ori!

Beste asko be ba-dira sartu diran katxaba-itzak, guztiak alboratu-bearrekoak: "Aunkesea bat emoistazu!, "sikeran be! Ordua izan da etorteko"!

Laugarren atalean agertu gendun, oraintxe, batez be itxas-aldean, sartzen asi jakun "porke" lotsagarria.

## DAGOLA/DAGOALA

Gramatikalariai, erritik artuta, arauak ezarten dabez, gaztelarazko Akademiak bere ikur-esaldian diñoan lez izkuntza "garbitzeko, sendotzeko ta argitzeko", baiña erriak bere jokabideak aldatu egiten dauz eta sarritan jakin be ez dau egiten gramatikarik dagon. Gero idazleak zalantzan geratzen gara zeñeri jarraitu ez dakigula, ala erriaren bideari ala gramatikako aruari. Ori jazoten da gaur aztertu bear dogun gramatika-arazo onetan: "Garbiñe etxean dagola (ala dagoala?) entzun dot" edo "ez dakit Garbiñe etxean dagoan (ala dagon?) ala joan egin dan".

Ona emen burura jatorten arau bat: Bitarteko "a" ori, izen-ordea danean baiño ez erabili. Emen izen-ordea diño-danean erderazko "relatiboa" da: "Etxean dagoan Garbiñe ikusteko etorri naz", "Ez dakik Garbiñe etxean dagon". Nik ez neuke iñoz bitarteko "a" ori sartuko esaldi txikia aderazten dauan, "la" ezarteko: "Etxean dagola entzun dot", "biar datorela esan dau" ("e" ori betegarria da, besterik ez). "Erregeak gudari guztiak datozela agindu dau" (barbin "e" betegarria da). "Joan bear dauana doala eta etorri bear diranak, datozela".

Orrelan ez neuke onartuko "Dagoana dagoala, jaurti egizu danbadea". Beste onetara bai: Dagoana dagola, jaurti danbadea".

## ENTZUN DAUST/ENTZUN/NAU

Aditz batzuk euren berezitasunak izaten dabez, errian ondo errotuak, eta ez da ain errez ikusten euren araubideko zuzentasuna. Esaterako: "Entzun".

"Entzun" aditzak "nori" joko illun bat eskatzen dau. Ez dogu esaten "ni entzun nau", bai, ostera, "niri entzun daust". Argi ikusten da egozkizun zuzena dauanean: "niri entzun daust egin dautsodan eskaria". Beste batzutan onartzeko lakoa izaten da beste au: "sagua olean zarataka ebillen eta Julen'ek entzun egin eban (ez entzun egin eutson).

Arau estuegirik emon barik, egozkizun zuzenena errez ikusten danean erabiliko neuke "nori" jokoa eta egozkizun zuzena errez ikusten ez danean, "nork" jokoa: "eskaria isilean egiten dodanean be, ama onak entzuten nau (edo entzuten daust).

Ez da erreza euskerearen illuntasun au argitzea eta onena dagoanean iztea izango da.

## ZORIONA!

Gabonaldian ugari eta urtebetze-eguna danean sarri, entzun eta entzun edo ikusi eta ikusi ibiltzen gara edonon "zorionak" itza, erderazko "felicidades" euskeratuta.

Erderazko itz ori ez dago ondo: "Muchas felicidades" baiño obeto legoke "muchas felicidad", zoriontasuna aundia edo txikia izan leiteke, baiña beti izaten da bat, ez asko.

Euskaldunak ortik artu dogu "zorionak" itza, eta ez geunke esan bear orrelan, "zoriona" baiño.

Adibide batzuk: "Gabon eguna da eta egun onetan zoriona opa dautsut" edo "gabon zorionsua izan dagizula", ez "gabon zorionsuak" Zoriona guztioi!

Edo "zoriona zuri, Zuriñe, amar urteak betetzen dozuzan egun onetan".

**Olazar tar Martin'ek**

Bekosuaren ondoan gengozala Jean Paul asi zan berbetan. Ez oizkoa zalako bera berbetan astea arreta berezia ipini neutson bere azalpenari.

—Zuk Jaungoikoarengan sinesten dozu?, itaundu eustan.

Asieran zalantzak izanagatik, —baietz— erantzun neutson.

Eta demoninoarengan? berak barrero begietara begituz zirkinik be egiten ez dauala.

Ba orrengan ez, bota neutson.

—Jaungoikoarengan bai eta demoninoarengan ez, ori zelan ulertu leike ene lagun maitea?, —bota eustan braust. Jaungoikoa aintzina aaztu zan berak bere antzerara eginiko gizakietaz. Perfekziorik ez da existitzen bere obretan, eta lan ikaragarria egin ebala pentsatu baeban asieran laister konturatu zan gizakia zer nolako akatsen bilketa zan. Andik aurrera gizakietaz aaztu zan.

Ni mutu, baina Jean Paul aurrera joian. —Nik berba onek aspaldi bota neutsozan Jaungoikoari aurpegira, baina berak garesti ordaindu arazi eustan bere esanetan, lotsabakokeriaren ordaina. Arrezkero bere ondotik bota ninduen gizakien mundu zitalera betirako kateiatuz nireganako epaia gaitzetsiz. Ordutik izen asko ipini daustiaz, baina geienak demonino'lez ezagutzen naute.

Jean Paul, —esan neutson — Jaungoikoak sarritan eta une latzetan batipat seinaleak uzten ditu. Asieran ulertu ez arren denborak erakutsi daust Jaungoikoak pista batzuk usten dituala eta norberak ikusi bear ditu seinale orrek.

Jean Paulek orduan sumindurik bezala:

—Zoritxar guztietan bera beti geratzen da albo batera. Bere semeak bazarie zelan onartu leikez munduan gertatzen diran basakeriak?

Nik orduan:

—Telebistan agertuko balitz Jaungoikoa "erduze niregana" esanaz, ez litzateke bide egokia izango, ezarritako bidea baiño. Norberak norberaren barnetik asita aurkitu bear dau bidea.

Amaitu eta bereala Jean Paulek zera esan eustan:

—Badakit ez daustazula sinestuko baina ni nauzu demoninoa eta gura badozu frogatuko dautsut. Beste sei urte barru istripui latz baten ostean il egingo zara, baldin eta zure arima saltzen ez badauztazu.

—Ori beste barik esatea erreza da, —esan neutson.

Itaun batzuk egingo dautsudaz nitaz eta erantzunak baldin badakizuz, beste gauza bat pentsatuko dot zutaz:

—Noiz eta non jaio nintzen. Gurasoen izen abizenak eta nire amonaren eskonduurreko baserriaren izena.

Jean Paulek denbora artu eta erantzunak zuzen zuzen bota eustazan.

—Zein arrazoigatik zabailtz Done Jakue bidea egiten erromes bezala? —itaundu neutson.

—Ai ene lagun maitakorra. Bide onetan Jaungoikoa maite daberen pertsona ugari topa neikez eta nire eginkizuna da, erromes kristau bakoitzari sinistaraztea Jaungoikorik ez dagoela eta beraien arimataz jaubetzea.

Zuri be proposamen bat botako dautsut maai ganera eta ondo pentsatu ostean erantzun.

Isilune baten ondoren:

—Eskatu gura dozuna, eta gura dozuna izango dozu. Ori bai, zure arima aurrean dozun erromes lagunari saldu ostean.

—Jakin gura neuke jendeak zer eskatzen dautsun, olan otz-otzean neuk be ez dakit zer eskatu eta...

—Jendeak geien eskatzen daustana, betirako bizitzea da, ilezkortasuna. Gero beste batzuk dirua eta boterea. Beste batzuk gutxiengoak gaixorik eta iltzear dauken norbaiten sendaketa. Eta beste gauza bitxi asko, danak esateak luze joko leuke.

—Eta orain zer? —Berak arro-arro.

Nik orduan zera esan neutson:

—Beitu Jean Paul edo deitzen zarean orrek, zalantzak izatea gizakiaren sentimenduetariko bat da, bizinariaren ezaugarrietako bat. Zuk Jaungoikoa zalantzan jartzen daustazun modura, nik zure irudia ere zalantzan jarri neike, orregaitik ez dautsot Jaun zeruetaoari oraintxe onuntz bajatzeko eskatuko. Denborak esango daust, orain emen izango dogun alkarrizketa eraginkorra izan dan ala ez.

—Orduan belu —esan eustan kopetilun.

Jean Paulek edo obeto esateko demoninoak, eskua luzatu eustan bostekoa emon gurean baina zeaztu ezineko sen batek ez eskurik luzatzeko adierazi eustan.

Agur esanaz batera zabaldu eban atea eta joan zan batek daki nora edo zertara iluntasunean barrena. Gau aretan ez neban lo larregirik egin. Urrengo goizean Burgosera eldu, bertako katedralera sartu, aita gure bat erreztatu eta etxekoei deitu neutsen bila edor daitezcan.

Urte aretan Bugosen amaitu zan nire Done Jakue edo Santiagorako bidea. Urrengo urtean Burgos'etik asi eta Konpostelako Santiagon burutuko neban neure naia. Ori bai, inori arimarik saldu barik.

Ez zan eriotzezko istripurik suertatu. Ez zan zoritzarra gailendu. Pasadizo onen asieran esan bezala, ia eun urte daukodaz, eta inoizko federik sutsuenagaz bizi naiz pozik.


# EUSKALDUN BARRIENTZAT




Lotu zenbakiak eta marrazki bat lortuko dozu!




7 erru



Margoztu: 1 orlegiz, 2 oriz, 3 marroi-illunez, 4 marroi argiz, 5 urdin argiz.



Nundik elduko da mutilla gozokira?



BILBAO 700 • III MILLENIUM

# kultura sortzen dogu

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara. Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Au da gure kultura.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

200 pezeta (1,20 Euro)

